


## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

17-70 arteko pertsonak izango dira gure bezeroak, egunerokoan estresa sufritzen eta bere buruarentzat denbora bat behar duten pertsonentzat, gure zerbitzuarekin hobeto sentitzeko aukera emanaz. Horrez gain, produktu berri eta etikoen inguruan gehiago jakin nahi duten pertsonentzat ere bideratuta izango da gure zerbitzua.

Zerbitzua hiru adin-taldetan banatuta egongo da pertsona bakoitzarentzat pertsonalizatuta egon arren.

- ❖ **Gazteentzako** (17-30 artekoak gutxi-gorabehera) Ikasketen eragiten duten presioari aurre egiteko ondo etorriko zaie.

Adibidez: Igande lainotsu batean, ez dutenean egitekorik, gure zerbitzuarekin erlaxatuko ahal izango dira. Gainera, antsietatea edo depresioa sufritzen dutenentzat ere baliagarria izan daiteke. Baita, krisi existentzial batean aurkitzen badira, haien burua bilatzeko arazoekin, ere.



- ❖ **Helduentzako** (30-60 artekoak gutxi-gorabehera) Lan gogorra eta egunerokotasunean erritmo azkarra dutenentzat (adibidez, umeak dituzten pertsonentzat) bideratuta dago. Baita momentu zail batetik pasatzen ari direnentzat ere, adibidez, menopausia, norbait galdu duen jendea, dibortzio batetik pasatzen ari badira, lana galdu badute, gaixotasunak

badituzte inguruan...

- ❖ **Adineko pertsonentzat** (60-70 artekoak gutxi-gorabehera) Adin-tarte honetako %20ak baino gehiagok arazo neurologiko edo mentalen bat dute. Haietako askok ezgaituak sentitzen dira, mugitzeko zailtasunengatik, min kronikoengatik, ahul sentitzen direlako edo buruko nahiz gorputzeko beste arazo batzuegatik. Gainera, askok, maite dituzten pertsonen heriotza bizi behar izan dute. Faktore guzti horiek isolamendua, independentzia galtzea, bakardadea eta larritasuna sentitzea eragin diezaiakete. Gure zerbitzuak arazo horiek momentu batez alde batera utzi eta ahazteko funtziona dezake.

